

21. ^{æek} korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**



Badator KORRIKA! **B2**

Udak aspaldi utzi gaitu; egunak gero eta laburragoak dira; inguruko basoak, duela gutxira arte berdeak, kolorez janzten ari zaizkigu... Azaroan gaude, udazken bete-betean. AEKra, baina, udaberria heldu dela dirudi. Izan ere, euskararen aldeko erakundearen begirada apirilean jarrita dago dagoeneko, datorren udaberriak, ohiko lore, alergía eta enara iragarleez gain, oso bisitari berezia ekarriko baitigu euskara maite dugun guztioi: KORRIKA, euskararen aldeko ekitaldirik handiena.



Asier Aondo, KORRIKA arduraduna

Klik egin nahi diogu garai berri bati, kulturari, geure hizkuntzari...

2019ko apirilean, KORRIKA, euskararen aldeko lasterketa erraldoia, Euskal Herrian ibiliko da berriro, eta gure herriak kolorez, musikaz, ilusioz eta, batez ere, euskaraz beteko ditu. Datorren urteko KORRIKA 21.a izango da, eta, lasterketaren aurkezpena egiteko, AEK-k Donostiako San Telmo museoan bildu ditu kazetariak. Bertan, Asier Aondo KORRIKA arduradunarekin hitz egin dugu.

Hilabete gutxi barru, "Tipi-tapa, tipi-tapa, KORRIKA!" entzungo dugu, berriro ere, gure herrietako kaleetan. Baina zer da KORRIKA? Nola azalduko zenioke ezagutzen ez duen bati?

KORRIKA euskararen alde antolatzen den ekitaldirik handiena eta ikusgarriena da. Izatez, lasterketa erraldoia da: hamaika egunez, milaka eta milaka lagun ibiltzen dira arineketan, gau eta egun, gelditu gabe, Euskal Herri osoan zehar; 2.000 kilometro baino gehiago egiten dira, jarraian, giro apartan, musikaz lagunduta, mozorrotuta...

Baina KORRIKA lasterketa bat baino gehiago da...

Bada, bai. KORRIKAn, kirola egiten dugu, egoa da, baina

helburu nagusia ez da sasoian egotea, AEKren ohiko xedea baizik, hau da, euskararen ezagutza, erabilera eta normalizazioa bultzatzea. Horrez gain, helburu ekonomikoa ere badugu: euskaltegiei ekonomikoki laguntzea, bakoitzak behar duen neurrian, jakina.

Oraingo 21. edizioa da, beraz, beste hogeit hamar KORRIKA antolatu dituzue.

Bai. Lehenengoa 1980an antolatu zen. Oñatitik abiatu zen KORRIKA hura, eta milaka lagunek hartu zuten parte, gaez zein egunez, eguzkitan nahiz euripean, zortzi egun geroago Bilbora iritsi arte. Milaka lagunek baino, "milaka zorok" esango zuen garai hartan jende askok. Baina zoro haiei esker, hala nola ondorengo KORRIKAK antolatu dituzten eta bertan parte hartu izan duten beste zoro guztiei esker, apurka-apurka, edizioz edizio, euskararen aldeko ekintzarik handiena eta parte-hartzaileena bilakatu da KORRIKA, euskalgintzaren, euskal kulturaren eta euskararen erreferentzia. Gainera, atzerrira ere esportatu da: Irlandara, Britainiara, Galiziara...

Lehenengo edizio hura, hortaz, Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zen. Nondik nora joango da 21. KORRIKA?

Bada, Gares eta Gasteiz artean egingo da, apirilaren 4tik 14ra. Oraindik, hasiera eta amaiera baino ezin dugu iragarri, baina, batetik besterako bidean, betiko legez, Euskal Herriko herri gehienetara hurbilduko gara. Laster emango dugu ibilbide osoaren berri, zuen herritik noiz igaroko den jakin dezazuen.

Ibilbidea ezagutzeko, itxaron egin beharko dugu, baina KORRIKAK baditu, ibilbideaz gain, beste osagai garrantzitsu batzuk: kanta, mezua...

Sekretu horiek ere gorde egin behar ditugu, oraingoz. Mezua Garestik Gasteiza joango da, beti bezala egurrezko lekukoaren barruan, zeina korrikalariek eskuz esku eramango duten helmugara; bertan irakurririko dugu, KORRIKA amaitu eta berehala. Lekukoa bera ere KORRIKAREN osagai garrantz

tzitsua izan da edizio guztietan. Lehenengoa, Remigio Mendiburuk egin zuena, San Telmo museo honetan bertan dago ikusgai.

Kantari dagokionez, ez duzue asko itxaron beharko ezagutzeko, abenduan plazaratuko baitugu. Halere, oraingoz, ezin dezaket askoz gehiago esan. Hori bai! Ez dut zalan-tzarik edizio honetako kantak, aurrekoek bezala, arrakasta handia izango duela, eta laster barru ahoz aho ibiliko dela.

20. KORRIKAn, ekimenaren sortzaileak, asmatzaileak, omendu zituen AEK-k. Jakin daiteke nor omenduko duen 21. edizioak, ala hori ere sekretua da?

Ez, ez. KORRIKA bakoitzak, dakizuenez, euskararen alde nabarmendu den pertsona edo erakunderen bat omentzen du, eta, oraingoa, *Txillardegik* izan da aukeratua. Hautu hori egiteko arrazoi ugari aipa daitezke, *Txillardegik* literaturan, ikerkuntzan, irakaskuntzan eta, oro har, euskalgintzan utzi digun ondarea oso handia baita. Baina bada, hark egindako ekarpen guztien artean, euskararen historian izugarrizko garrantzia izan duen bat, gure hizkuntzak bizirik irauteko giltzarria izan daitekeena: euskara batua. Euskara batuaren sorrera, euskaldunon historian egin den gauzarik inportanteena, ziur aski, *Txillardegiri* zor diogu, neurri handi batean. Horrexegatik, aurten euskara batuaren 50. urteurrena ospatzen ari garen honetan, KORRIKAK *Txillardegik* omentzea erabaki du.

Amaitzeko, KORRIKAn leloa aipatu nahi dugu. Lehenengo KORRIKAn leloa "Zuk ere bai euskarari" izan zen; azkenekoarena "Batzuk"; datorrenarena "Klika"... Gero eta letra gutxiago erabiltzen duzue leloak sortzeko.

Bai, oraingoa bost letra baino ez: "Klika". Halere, letra gutxiren atzean esanahi handia egon daiteke, eta, kasu honetan, halaxe da. Klika aukera bat egitea da. *Txillardegik* berak, jatorriz erdalduna, bere garaian klik egin zien euskarari, literaturari, herriari... Bada, horren ildotik doa KORRIKA honetan zabaldu nahi dugun mezua, euskarari klik egitea proposatu nahi dizuegu: dakigunok erabiltzeari; ez dakitenek ikasteari... Klik egitea da euskaraz ahal-duntzea, euskalgetietan matrikulatzea; klik egitea da herritar guztion hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartzea,

gure hizkuntzaren aldeko konpromisoak hartzea. Klik egin nahi diogu garai berri bati, kulturari, geure hizkuntzari; klik eginez, hizkuntzaren argiak piztu nahi ditugu, doinuak, ahogozaok... Euskarak hurrengo fasea klikatu behar du: ekintzarena, konpromisoarena, kontzientziarena... Laburbilduta, "Klika" leloaren bitartez aldarrikatu nahi dugu euskararen aroan gaudela, badela unea euskararen alde aktibatzeke, erabakiak hartzeko.

KORRIKAn ere klik egin beharko diogu.

Jakina. KORRIKAn parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet guztiok: KORRIKA kulturalako ekitaldietara joanez, lasterketa zuen herritik igarotzean metro edo kilometro batzuk eginez, edo, nahi izanez gero, KORRIKA prestatzen lagunduz... Modu asko dago KORRIKAn klik egiteko, eta merezi du. Aurreko edizioetan parte hartu izan baduzue, seguru nago KORRIKA hau iristeko irrikan zaudetela; orain arte parte hartu ez baduzue, berriz, ez galdu aukera, hurrengoa etorri arte urte luze bi itxaron beharko duzue eta. Anima zaitzete, eta KORRIKAn ikusiko dugu elkar.



Azpimarra itzazu testuko esaldi hauek berridazteko forma egokiak.

1. ... hamaika egunez, milaka eta milaka lagun ibiltzen dira arineketan.
*... hamaika **egunetan/egunatan/egunean**, milaka eta milaka lagun ibiltzen dira arineketan.*
2. Lehenengo KORRIKA Oñatitik atera zen,... zortzi egun geroago Bilbora iritsi arte.
*... **zortzi egun barru/zortzi egunen buruan/zortzi egunez gero** Bilbora iritsi arte.*
3. Hurrengo KORRIKA Gares eta Gasteiz artean egingo da, apirilaren 4tik 14ra.
*...Hurrengo KORRIKA ... Gasteizen amaituko da **hilaren 14an/hilabetearen 14an/hilearen 14an**.*
4. ... oraingoz, ezin dezaket askoz gehiago esan (kantari buruz).
*... **ezer gutxi/zernahi/zenbat-nahi** esan dezaket (kantari buruz).*
5. ... *Txillardegik* utzi digun ondarea ... oso handia izan baita
*...Txillardegik **utzitako/utziko/utzirikoa** ondarea ... oso handia izan baita*
6. ... euskara batuaren 50. urteurrena ospatzen ari garen honetan, Korrikak *Txillardegik* omentzea erabaki du.
*... euskara batuaren 50. urteurrena ospatzen dela **baliatzen/baliatuz/baliatzeaz**,...*
7. ... euskarari klik egitea proposatu nahi dizuegu.
*... zera proposatu nahi dizuegu: **egin ezazue/egiozue/egin dezakezue** klik euskarari.*

04 Denbora-pasak

BERTSOAK OSATU

Jarritako gaia:

Aitona-bilobak zarete. Lekeitioko eskolapean jolasean ari zaretela, KORRIKA igaro da. Sustrai bilobak hauxe galdetu dio aitonari: "Nora doaz horren azkar?"

A. Mendiluze:

Ene iloba galdezka zatoz bertatik _____: nora dihoaz hauek guztiak nora doaz ta _____? Nik zergatia eta norantza zein den ederki _____ urruti doaz oso urruti bertako _____.

S. Colina:

Beraz helmuga omen daukate Nueva York edo _____ urruti nun den nik ez dut eta oso ondo _____.

Begira nola denak grinatsu eta sasoiari _____ benga aittitta utzi bastoia ta eurekin joan _____.

A. Mendiluze:

Nola diozu bastoia utzi ta abia _____? Ondo dakizu ezin naiz jardun korrika hoiek _____.

Lehen ez det esan beren helmuga hizkuntza indartzea _____ beraz beraien pausoak nere hitzak izan _____.

FALTA DIREN BERTSO-OINAK:

DOAZEN	ZELA	ALDAMENETIK
BEZELA	BADAKIT	DAITEZELA
ZERGATIK	GAITEZELA	GAITEZEN
PARISEN	ENTENDITZEN	IZATEAGATIK

Bertsok entzun nahi badituzu, jo hona:

bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/e4p20

Bertsok ondo osatu dituzun egiaztatzeaz gain, sorta honetako azken hiru bertsoak ere entzun ahal izango dituzu.

KORRIKA... MUNDIALA!

EA ASMATZEN DUZUN!

1. Gaur egun, zenbat lasterketa egiten dira, Europan, hizkuntza gutxituen alde?
 - a. KORRIKA bakarra dago, euskararen aldekoa.
 - b. Lau bat?
 - c. Sei direla uste dut...
 - d. Aurrekoak ez dira zuzenak.
2. 20. KORRIKA munduko zenbat lekutan egin zen?
 - a. Esango nuke 10 bat lekutan egin zela...
 - b. 20 bat lekutan?
 - c. 40 lekutan baino gehiagotan.
 - d. Aurrekoak ez dira zuzenak..

ERANTZUN ZUZENA:
korrika.eus/2444-europako-hizkuntza-gutxituen-aldeko-las-terketen-gutuna

ERANTZUN ZUZENA, BIDEOAK ETA IRUDIAK:
korrika.eus/korrika-munduan

Txistea

- Edurne, zuk esan duzuna ez da zuzena.
- Kontxo, Paco! Euskaltzaindiakoa al zara, ala?
- Ez, baina, izango banindukezaio bezalako.